


itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria (((37. zk))) Iraila-Abendua 2017



**Ongi etorri
errefuxiatuak Itsasondora!**



Avinguda enginyer Andoni Sarasola
Ibilbidea: Zaldibia-Osinberde
Partaidetza lantaldeak aurrera begira



Agurra

Oporrak gertu ditugun honetan, hor gabiltza denak korrika eta presaka alde batetik bestera, dena amaitu nahian, lanean. Abuztua datorrenean, mundua amaitzeaz dagoela dirudi; dena da presazkoa eta amaitu beharrekoa, oporretara joateko ere dena prest edukitzea ez da erraza izaten: kotxea puntuan jarri, mailetak prestatu, erosketak eta enkarguak egin... Gu ere, ez pentsa, horrelaxe gabiltza, Itsasondo 2.0. aldizkariaren 37. alea kaleratzea lortuko ote dugun kezkatuta.

Oporrak hartzen ditugunean ere, zerbait egiteko hartzen ditugu, norabait joateko, egun hauetan kalean ez da besterik entzuten, ez digute besterik galdetzen: *Zer egin behar duzu oporretan? Nora joango zara oporretan?* Eta, zergatik ez dute izan behar oporrek inora ez joateko eta ezer ez egiteko egunak? Lasai egon eta atsedean hartzeko behar luketen egunak gure egin behar horiekin, sarri estres, bete-behar eta presaz beteriko egunak bihurtzen ditugu. Ez gaitetzen gaizki sentitu oporretan egin eta joan ordez, bertan eta lasai egon nahi dugulako, ez gaitetzen lotsatu *aurten hemen lasai* egongo naiz esateaz.

Eta, oporretan norabait eta zerbait egitera doazenei, primeran pasa dezatela opa diet; hori bai, hemen topatuko naute bueltatzean.

Egunean geratzen garonontzat, Itsasondo 2.0. aldizkaria konpainia, informazio eta distraio iturri izan dadila espero dugu. Saiatu gara denon artean aldizkaria edukiz betetzen, herrian gertatutakoen kronika egiten, kultur hemeroteca azalera ekartzen, elkarrizketa laburrak egiten eta eragile ezberdinen informazioa eta ekin-tzak jasotzen. Beste behin ere, eskerrik asko zuen laguntzarengatik.

Abuztua ere pasatuko da, eta irailean egunerokotasunaren makinaria guztia martxan jarriko da: lana, eskola, ikasketak, ikastaro eta asmo berriak... Konturatu aurretik zurrunbiloak barneratuko gaitu eta txiringito, hondartza, mendi eta opor bidaiak lausotuta geratuko dira. Eskerrak Itsasondoko jaiak hortxe ditugun. Herriar guztiak festaz gozatzera eta ekintzetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Indarrak hartu, ikasturte berriak eskatuko dizkigu eta. ■



Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04. **Haurreskola**
- 05. **Eskola**
- 06. **Uda kanpaina:** Itsasblai martxan
- 07-09. **Guraso elkarteak:** Diziplina eta bullying-a
- 10-11. **Ongi etorri errefuxiatuak**
- 12. **Elkarrizketa:** Txomin Laborde-Peyre
- 13-16. **Agenda 21:** parte hartze lantaldeak
- 17. **Informatika:** interneta oporretan
- 18-19. **Andoni Sarasola**
- 20-21. **Ibilbidea:** Zaldibia-Osinberde
- 22-25. **Hemeroteka**
- 26. **Natura eta errezeta**
- 27. **Euskararen atala**
- 28. **Oharrak / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Norteko ferrokarrila*

Itsasondoar ingeniari bat Valentzian famatua bere izena kale batean ohorez zizelkatua, nonbait Andoni Sarasolatara badago zer kontatua bere semeak azaldu digu etxean ezagutua.

Uda garaian eskolentzako ikasturte amaiera baina halare udalekuak luza dute ibilera, herriko festak eta hondartzak, gauetan plaza aldera eguneroko disziplinari arnas piskat ematera.

Sendabelarrak garbitu eta bota behar lapikora gure gorputzak sentitu dezan mesede eta ganora txikienekin mozorrotzea probetxuzkoa izango da irri artean heldu gaitzen Erroma ta Egiptora.

Udaleko berriak

2017. urteko bigarren hiruhilabetean udaletxean egin diren ekintzen berri azalduko dizuegu jarraian.

Udal batzarrak

Ekainaren 5ean egindako udal bilkuran tratatutako gaien artean, honako hauek azpimarratu daitezke:

- **Mozioak:**
Aralar Bizirik Plataformak, Aralarreko pisten inguruan aurkeztutako mozioa onartu da, aldeko lau boto eta kontrako batekin.
- **Onartutako araudiak:**
Behoko kaleko zelaia-
ren funtzionamendua eta erabilera arautzeko arautegia eta konpost-guneak erabiltzeko araudia. Orain jendaurrean daude, eta alegazioak aurkezteko epea abuztuaren 3an amaituko da.
- **Bestelakoak:**
 - 2017ko aurrekontuan kredituak aldatzeko 1. espediente onartu da; 23.450 euroko zenbatekoa du.
 - 2016ko kontu orokorrak onartu dira.
 - Zenbait udal lur sailletako zuhaitzak moztea eta aprobetxamendua Serreria y Embalajes Salaberria enpresari saltzea onartu da.
 - Gizarte zerbitzuetako langileen plantilla birregitatzeko asmoz, plantilla aldatzea onartu da.



Alkate dekretuak

- Apirileko fakturen zerrenda onartu da: 11.442,50 €.
- Maiatzeko fakturen zerrenda onartu da: 50.749,03 €.
- Udaletxeko kultur gunea eta lokalak erabiltzeko herriko el-karte eta eragileen partetik 11 eskari izan dira.
- 2017ko 1. hiruhilabeteko ur errolda onartu da: 16.363,20 €.
- Korrika-ri 600 euroko laguntza eman zaio.
- Larrialdi laguntzak onartu dira: 840 €.
- Hirigintza lege hauste espedientea bideratu da.
- Herri bideen inbentarioa egitea erabaki da: 13.500 €.
- 2. kreditu aldaketa espedientea onartu da: 10.000 €.
- Obra txikien bi lizentzia eman dira.
- Obra handi baten lizentzia bideratu da.
- Udal eraikinen suteen mantenimendurako zerbitzua kontratatu da, Foru Aldundiko kontratazio sistemaren bidez.

Diru-laguntzak

Azken hiruhilabetean honako diru-laguntzak eskatu dira:

- **Eskatutakoak:**
 - Itsasondoko Bio-hondakinak auzo konpostajearen bidez kudeatzeko aukera desberdinen azterketa egiteko.
 - Eusko Jaurlaritzak jarduera fisikoa sustatzeko egindako deialdia jarraituz TIPI TAPA proiektua finantzeko laguntza.
 - Euskararen aldeko ekintzak gauzatzeko eskaera.
- **Jasotakoak:**
 - Errota pilotalekuan irisgarritasun arazoa konpontzeko 162.000 euro. Laguntza hau jasotzeko, udalak 324.000 euroko inbertsioa egin beharko du.
 - Urkitik Ermintza aldera doan herribideko zati bat konpontzeko laguntza.■



Ikasturtearen azken txanpa

Adanik ikasturtearen azken txanpan sartu gara, eta batzuei agur esateko garaia da. Dakizuen bezala, Itsasondoko haurrekolan, heziketa 0-2 bitarteko haurrekin lantzen dugu. Hau da, jarduera fokoak landuz, haurraren autonomia bultzatzen dugu, beti ere bere erritmoa eta garapen ebolutiboa errespetatuz. Bestalde, urtero bi urteko haurren agurra izaten da; hauek beste etapa batean sartzen baitira bere garapen prozesuan pausoak emateko.

Eskerrik asko haurrekolan parte hartu duzuen haur eta guraso guztioi. Hemen doazkizue urte honetan guztiok egin dugun lanaren irudiak, oso esanguratsuak baitira. Bukatzeko, hurrengo ikasturtean ikusiko dugu berriro elkar, albiste berriekin. Gure txoko honetatik, uda ederra igaro dezazuela opa dizuegu guztioi. ■



“Erroma eta Egipto”, gure azken proiektua

Azken hiruhilabeteko honetan, antzerkia egitea erabaki dugu. Ikasturtean zehar antzerki txokoan hamaika aurkezpen antolatu eta egin ditugu. Oraingoan, Erromara eta Egiptora bidaiatzea erabaki genuen, eta HEZKIDETZA kontuan hartuz, Kleopatraren pertsonaiaz baliatu gara. Hiru eta zazpi urte bitarteko haurrek antzerkiaren bitartez bi zibilizazio hauei buruz ikasteko eta berau BIZITZEKO aukera izan dute. Emakume batek zer nolako eragina izan zuen ikusteko aukera izan dugu, eta interesgarria izan da, gizona besteak bigarren mailan azaldu baitira antzerkian.

Errege nahiz erregeinek zuten bizimoduaz interes handia azaldu dute gure haurrek. Hala nola: neba-arreben arteko ezkontzak, batak bestea pozoitzeko eskubidea...

Heriotzaren gaia azaletik azaldu bada ere, esanguratsua gertatu da, arrazoi desberdinengatik pertsonaia gehienak hil direlako. ■





Itsasblai martxan

Ekainaren 26an hasi ziren udaleku irekiak, eta uztailaren 21era bitarte, lau astez 24 haur eta hiru begirale (bat praktikaldian) goizero elkartu dira hainbat ekintza, jolas eta irteera egiteko.

Aurten, ordea, berezitasun bat egon da. Udalekuak Irrizblai aisialdi taldearen eta udalaren zein guraso elkartearen arteko lankidetzaren bitartez kudeatu dira. Irrizblai euskalkulturgintza eta aisialdia uztartuko dituen Goierri mailako aisialdirako elkarte da, eta irabazi asmorik gabeko elkarte honek, besteak beste, honako helburuak ditu:

1. Goierriko aisialdi eskaintza osatzea eta zabaltzea ikuspegi zabalenean. Herriz herri Irrizblairen proiektua ezagutarazteko eta zabaltzeko lana egitea, eta epe luzera begira, aisialdi taldean parte hartzen duten haurrak, euren herrietan bertako etorkizuneko begirale izatea litzateke xedea; haur eta gazteen arteko gupila sortzea, alegia.
2. Goierriko aisialdiko sarea sortzea. Ordizian sortutako taldea den arren, inguruko herrietako gazteak ere badira taldean, eta herrien arteko harremanak eginez, eskualde mailako ekintzak antolatzea.
3. Eskualdean aisialdian interesa izan dezaketen gazteak trebatzea. Aisialdiko Begirale Ikastaroa Ordizian ateratzeko aukera ematen da Urtxintxa elkartearekin elkarlanean, eta Legorretako Udalak diru-laguntza eskaintzen die trebakuntza hau jaso nahi duten herritarrei.

Itsasondori dagokionez, nabari da aisialdirako dagoen interesa. Herri txikia izanik ere, haur talde polita egon da udaleku irekietan, eta epe luzera begira, aberasgarria izango litzateke haur horiek etorkizuneko begirale izatea.



Urtero lez, askotariko ekintzak egin dira: euskal eguna, zikin eguna, San Ferminak, uraren eguna, MasterChef, Zu bai artista!... Eta, aurten ere, Aramara nahiz Legorretara joan dira ederki pasatzera. Gainera, azpimarratzekoa da oraingoan Tolosako Topic txotxongilo zentrorra joan direla haurrak, baita pare bat aldiz Ordiziako igerilekura ere; eta horiek eguneko txangoak izan dira! Gainera, Irrizblai inguruko herrietan ere buru-belarri lanean aritu denez, uztailaren 21ean Irrizblai jaia egin zuten Oiangun. Horrela, haur guztiek izan dute aukera ondoko herrietako haurrak ezagutzeko, eta nola ez, egun paregabe bat pasatzeko!

Ondo dakigunez, herri bizia eta aktiboa da Itsasondo, eta udalekuak aitzakia hartuta, Irrizblaiako kideen laguntzarekin eta aisialdian interesa duten herritarrekin batera, aisialdi eskaintza osatzen eta indartzen joatea da asmoa. Guraso, haur zein begiraleak barne-bilduko dituen proiektua osatzeko aukera polita litzateke, eta horretan saiatuko gara irailetik aurrera. ■



Izar Arregi

Ikasturte honetan, Guraso Elkarteak gurasoei bideratutako formakuntza Izar Arregiren eskutik izan zen. Bi saio eman zituen, eta gai desberdinak ukitu. Lehena, “Diziplina” izenburukoa; bigarrean, aldiz, nahiz eta izenburua “afektibitatea” izan, bere gomendioak jarraituz, “nola lagundu seme-alabei beren lagun arteko arazoetan” gaia landu zen.



Diziplina

A biapuntua gurasoak ditugun bizipenak lantzea izan zen. Zein zaila egiten den batzuetan, gure seme-alabek kasu egitea, guraso seme-alaben arteko harremana, guraso bezala gure lekuan mantentzea, non jarri mugak, non ez...

Gaur egun, orokorrean ikusten dena da gurasoei errespetu gutxi zaiela. Iruditzen zaigu autoritateak berezkoa izan behar duela, ez dela ikasi beharreko zerbait; baina, ez da horrela, ikasten den gauza bat da. Guraso bezala, zorrotzak bihurtzen gara geure buruarekin.

Haurrak arauak eta mugak behar ditu bizitzan galduta ez ibiltzeko, norabide bat izan dezan. Horiek, familia edo etxe bakoitzaren irizpideak jarraituz, desberdinak izango dira; baina, mugak beharrezkoak dira. Muga hauek autoritate jarri behar dira eta ez autoritarismotik.

Kontuan hartu beharrekoa da baita ere, autoritatea denboran aldatzen joan behar dela, ez seme-alabaren adinaren arabera bakarrik; haur bakoitzarekin izan beharreko autoritatea ere desberdina izango da, nahiz neba-arrebak izan...

Gurasoaren autoritatea modu egokian jarri edo ez jarri, aldagai asko hartu behar dira kontuan. Alde batetik, gurasoaren izaera; gurasoaren historiak asko eragiten du. Eta, bestetik, seme-alabaren izaera, biologikoki datorena, momentuak, adinak, inguruak... eragingo diona.

Oinarria da guk zer guraso estilo izan dugun eta nola sentitu garen haur izandakoan gure gurasoekiko, eta hausnarketa mota hori landu egin behar da. Guraso bezala hobetu nahi badugu, ezinbestekoa da gure izaera edo gure jarrera, eta gu pertsona bezala nolakoak garen aztertzea; azken finean, seme-alabek ispilua jartzen baitigute.

Nahiz eta zaila izan, funtzionatzen duena da arauak jarri eta horiek betearaztea. Koherente eta konsekvente izan behar da arau baten aurrean. Lehenengo egunetan ez da beteko, baina jarrerari eutsi egin behar zaio, haurraren joera beti araua apurtzea izango baita. Baina, horrek ondorioa izango du... Zein ondorio? Ondorioak beti apurtutako arauarekin zerkusia izan beharko du, eta denboran luzatu gabe... Ez du zentzurik apurtutako arauarekin zerkusirik ez duen zigorra jartzeak, eta gainera, zigorra bost egunera izatea...

Landutako beste puntu garrantzitsu bat, haurrarekin lis-karra sortzen zen momentuan bideratzen lagunduko ziguena, arazoa norena den identifikatzearen garrantzia izan zen, eta horren aurrean nola jokatu:

- Nire seme-alabaren arazoak bereak dira, ez nireak.
- Ni naiz berari bere bizipenak lantzen lagunduko dion konfiantzako heldua.
- Seme-alabaren adinaren arabera, gehiago edo gutxiago bideratuko dut nire erantzuna.





Bullying-a

Lagunarteko harremanak: "nola lagundu guraso bezala?"

Lagun arteko arazoak beti egon izan dira eta beti egongo dira. Berdinen arteko liskarrak, gure seme-alabek bizitzaz, baloreez eta norbere jarrera eta izaeraz ikasteko aukerak dira.

Azken aldian, ordea, ugariak dira triste, autoestimu baxuarekin eta benetan eskolara ezin joan izateraino (fobia eskolarra) psikologikoki zaurituta dauden ikasleak.

BULLYINGa: ikasleen artean behin eta berriz eta denbora jakin batean ematen den edozein eratako tratu txar fisiko, psikologiko edo ahozkoak dira.

EZAUGARRIAK:

- Taldearen babesa duen ikasle bat, bera baino "botere" gutxiago duen ikaslearekin sartzen da.
- Mantentzeko arrazoiak: ikasleak ez direlako ohartzen edo ez dutelako salatuz parte hartzen.
- Biktimak jasotzen dituen erasoak: burdak, isolamendua, borrokak, azpi jokoak...
- Denbora jakin batean mantentzen da tratu txarren egoera.

DENA EZ DA BULLYINGa. Helburua, hain zuzen, PREBENTZIOA jartzea izan behar da. Nola egin, ordea, lagun arteko liskarrak ikasteko eta pertsona bezala heltzeko espazio bat izateko?

Heziketa eta eskola-familia harremana sustatzea ezin bestekoak dira.

GURASO BEZALA, ALDATZEA KOMENI DIREN BI JARRERA:

1. Saihestu, ukatu eta ardura guztietatik kanpo jarri gure seme-alaba. Adibidez: "Jakinean nago Joseba albo batera uzten dutela eta burla ere egiten diotela, baina nire semea ez da sartzen eta berak ez dio mespretxurik egiten".

Zein balore transmititzen dizkiogu? "Zuk zurea egin eta ez salatu". "Zu ez sartu eta besteenak berdin du". Ez al dugu bada esan bullying-a mantentzen dutenak ikasleak edo isilik geratzen diren "konplizeak" direla? Zer gertatzen zaio bere seme edo alaba "konplize" dela ikusi nahi edo ezin duen gurasoari? Guraso horiek euren seme-alabek balore egokiak ikasteko aukera bat dela ohartuz gero, konturatuko lirake defendatzeari utzi eta guztiok egin dezakegula zerbait.

2. Dramatizatu. Nire seme-ari edo alabari gertatzen zaion gertaera mingarri baten aurrean, beldurtu, neure lagun arteko minekin nahastu eta egoera kronifikatu dezaket. Kasu larria izateko denbora jakin batean eman behar da isolamendu edo tratu txarra. Adibidez: "Nire alabari whatsappaz iseka egin diote eta hori moztu egin behar da lehenbailehen". Ikusi behar dugu zenbaterainoko ahul sentitzen den gaztea eta zenbat denboran ematen den burla eta zein errekurtso dituen gazteak aurre egiteko. Lagun arteko gorabehera horietan guztietan gaizki pasatzen da, eta lagundu egingo diogu gazteari modu egokian egiten aurre, baina ez dauka zertan izan bullying kasu bat.

NOLA LAGUNDU SEME-ALABARI LAGUN ARTEKO HARREMANAK MODU EGOKIAN BIDERATZEN?

1. Entzun sentipena. Ez eman garrantzia zein eta nork eta nola gertatu den. Nola sentitzen da? Sentimenduari izena ipintzen saiatuko gara. Adibidez: berdin zait nire semea lgorren meriendara ez den joan edo Mikelen meriendara ez den joan. Kontua da bera taldeak ezer ez duelako esan minduta, pixka bat baztertuta eta oso triste eta oso amorratuta sentitzen dela (sentipena identifikatu eta intentsitatea ere jaso).

2. Erantzuteko estiloa. Normalean, zer egiten duzu horrela sentitzen zarenean? Isilik geratu, gurasoei deitu, borrokan hasi, barregura emateko txorakeriak egiten egon bertan, atzetik jarraitu, bazterrean isilik egon, mendeku hartzen saiatu...

3. Beste estilo edo aukerak aztertu. Normalean erabiltzen ditugun estrategiak egoera batzuetan oso baliagarri izan direlako barneratu ditugu. Adin eta egoera desberdinetan, ordea, beste errekurtso batzuk landu behar dira. Erantzun posible bakoitzaren ondorio posibleak aztertuko ditugu.

Adin txikiko seme-alaba bada, geuk lagunduko diogu aukera desberdinen artean aukeratzeko. Gaztea bada, hor gaudela eta beregan konfiantza osoa dugula transmitituko diogu.

Gazte edo haur psikologikoki trebea da erantzun desberdin asko emateko gai dena. Adibidez: orain negar, ondoren aurre egin, beste batean salatu, edo ihes egin edo... Zenbat eta estrategia gehiago orduan eta aukera gehiago egoera desberdinetan egoki erantzuteko. ■

Arroan Gipuzkoako eskola txikien XXX. festa

Ekainaren 11n, Arroako ikasle, irakasle, guraso eta biztanle guztiek ilusio handiz prestatutako Eskola Txikietako XXX. Festa handia ospatu zen Zestoako Arroa Behean.

Hasierako ekitaldian azpimarratutako hitzek "Arroan eskola berria orain" mezua helarazi zuten egunean zehar.

Berlaratutakoek hainbat jolas eta ekintzetan parte hartu zuten, eta benetan egun aparta igarotzeko aukera paregabea izan zen, eguraldia ere lagun.

Bazkaltzeko hainbat aukera eskaini zituzten: auzoan hainbat taberna eta ogitarteko gozoen salmenta postuak egoteaz gain, aurtengoan karpan KANTU BAZKARIA ere izan zen. Bertan, 320 lagunek bazkaldutuzten, eta guztiontzat ezagunak eta betikoak diren abestien liburuxkak hartuta, kantu saio polita egin zuten.

Eskola Txikien lekukoa Arroatik Oikiara eskualdatu zuten; beraz, datorren urtean Oikian ospatuko dute jaia, beti bezala *Eskola txikiak bizirik, auzo eta herri txikiak bizirik* lelopean. ■



Ikasturte bukaerako festa

Urtero lez, ikasle, irakasle eta gurasoak elkartu ginen ikasturteari amaiera emateko festan.

Ikasturtean zehar egiten duten bezala, eguna 09:00etan hasi zen eskolan. Helduenek, irakasleekin batera, ekintzak eta jokoak prestatzeko ekin zioten: puxikekin jolasak, aurpegiak margotzea, tatuajeak, janariak dastatzea, beste hainbat ekintzen artean. Eta, indarrak hartzeko, nola ez, bizkotxo eta pasta gozoekin hamaiketako ere izan zuten!

Ondoren, kalejiran, herria alaituz, plazara jaitsi ziren. Ostean, bazkaria hasi zen, bi txandatan; lehenik haurrak eta ondoren helduak.

Behin bazkaria amaituta, Itsasondoko Euskal Dantza taldeak eta musika taldeak beraien saioa ere egin zuten, ikasturtean egindako lana erakutsiz.

Aurten Urkipe eskola utzi eta beste etapa bat hasiko duten ikasleei agur omenaldia egin zitzaizen. Gurasoekin batera elkartu eta beraien lagunak eta irakasleek bakoitzari eskolan pasatako urte guztiak laburtzen zituen argazki album hunkigarri bana banatu zieten.

Ur festa ere izan zen! Puxika, pistola eta traman-kuluak hartu eta mangerarekin ederki pasatu genuen!

Bukatzeko, musikak girotuta, meriendatxoa ere prestatu zuten. ■



Ongi etorri errefuxiatuak jaialdia



Asko zarete eskertu beharreko elkarte nahiz banakoak. Zuen laguntza eta elkartasunari esker jakin ekainaren 17a egun zoragarria izan zela guztiontzat, ahaztezina eta guztioi eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. **ONGIZATE BATZORDEAREN IZENENA BENE-BENETAN, ESKERRIK ASKO!**

Motxila. Bidaia. Erbestea. Beldurra eta itxaropena. Beltza nahiz gorria. Hitzak errenkadan datozkit. Ez da bat, ez bi, ez hiru... milaka dira. Haurrak, gazteak zein helduak... adinak ez du axola. Muga fisikoak, muga administratibo, juridiko eta legalak, muga psikiko eta mentalak, muga pertsonal eta kolektiboak, mugak... Itsasoak eta lurak ertz batean bereiztuak eta bestean batuak. Horixe da milaka pertsonen bizi duten eguneroko drama. **ERREFUXIATUAK.**

Azken urteotako errefuxiatu uholdea bezalakorik ez dugu ezagutu Europako II. Mundu Gerraz gerostik. Urtea hasi berrian ere, jaioterrria atzean utzi eta etorkizun baten bila datozenen asmoak ez dira baretu, eta milaka pertsona geratu dira Europara sartzeko nahi eta ezinaren aurrean.

Tarteka, komunikabideen bitartez gerturatzen digute irudiren bat gure etxeetako sofetara, kafe garaiko egunkariaren orrietara. Ikusi eta entzutera mugatuz, gure zentzumenak mugetan gertatzen denaren testigu isil bilakatuz gehienetan...

Ongizate batzordetik isiltasuna apurto eta gure zarrailatetik gertatzen ari den bidegabekeria krudel hau salatu nahi izan dugu. Errefuxiatuek bizi duten gordintasun horren lekuko izan, lehen eskutik jaso eta elkartasun zubiak eraiki, gizatasunetik, duintasunetik, eurekin bat egin asmoz.

Orain urtebete, siriar errefuxiatuei laguntzeko materiala bildu genuen; urte hasieran, Javi Julioren argazkiak mural bilakatu eta herrian jarri genituen auzolanean eta zenbait film ere elkarbanatu ditugu hari mutur anitzak biltzen dituen matazari tira eginez. Oraingoan, errefuxiatuen alde lanean ari garen elkarteak bildu nahi izan ditugu jaialdi honetan, eta guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, denak musutruk etorri baitziren jaialdi honen egitaraua bete asmoz. **ESKERRIK ASKO!** ■





Ekainak 17, jaialdiaren eguna

Jaialdia ostiral arratsaldean hasi zen, Ordiziako gaztetxeko gazteen eskutik, haur jolasak eta plaza apainketa eginez. Ondoren, elkarrekin afaldu genuen plazan, Aburuzako Sagardoa dastatuz.

Larunbatean, eguraldi onak lagunduta, monozikloen ongi etorriarekin, dianarekin eta trikipotearekin hasi genuen "Ongi etorri errefusiatuak" jaialdia. Jarraian, Beasaingo monoziklo eskolaren eskutik erakustaldi polita izan genuen plazan, eta bizikleta eroa probatzeko aukera ere izan genuen.

Egun osoan Irrien Lagunen puzgarriak izan ziren haurren gozagarri, baita aurpegi margoketa ere. Kataluniatik etorritako "Pallasos en Rebeldia"-ri esker, bi emanaldi ikusi genituen Alex Hohmann eta Veronica Verdu-ren eskutik. Errefusiatuen alde lanean ari diren elkarte hauek ere izan genituen gure artean stand banarekin: "Zaporeak", "Pasaportes Para Siria", "Ongi Etorri Errefusiatuak Gipuzkoa" eta "Salvamento Marítimo Humanitario".

Eguerdiaren, Iker Mendizabal eta bere laguntzaileek prestatutako paella solidario erraldoia dastatzeko aukera izan genuen. Edateko, berriz, Aburuza Sagardoa txotxetik eskuragarri egon zen plazan.

Postrea, kafea eta pastak hartu ostean, bingo solidarioan jokatu genuen giro alaietan.

Batzu bingoan zeuden bitartean, beste batzu frontoian,

Ekuatore Gineako ipuin kontalariak egin zuten emanaldiari adi egon ziren. Bien bitartean, plazan, bi herritarren eskutik, ilea mozteko eta apaintzeko aukera ere izan zen.

Meriendarekin indarrak hartu ondoren, Ordiziatik etorritako Burrenbasale Txaranga, buruhandiak eta erraldoiekin herrian zehar ibili ginen giroa alaituz eta bueltan, argazki bateratua atera genuen plazan.

Iluntzean, hanburgesa afaldu genuen, "Armiarma Compagnie"-ren ekitaldia ikusiz.

Egun osoan zehar, tonbola solidarioa ere egon zen martxan, tikeak erosi eta tarteka zozketak egiten ziren. Piskanaka piskanaka sari ugari banatu ziren herritarren artean.

Eguna bukatzeko, errefusiatuen alde lan egiten duten elkarteek prestatutako bideo emanaldia eskaini zen.

Guztion elkartasunari esker, jaialdi honetan, 2.601,35€ bildu genituen eta jakin diru guzti hori lehen aipatu ditugun elkarten artean banatu genuela; "Zaporeak", "Pasaportes Para Siria", "Ongi Etorri Errefusiatuak Gipuzkoa", "Salvamento Marítimo Humanitario" eta baita "Pallasos en Rebeldia" ere. ■

"Denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuk dena eman ez dezaten".

MILA ESKER ITSASONDO!

Txomin Laborde-Peyre

Baionan jaio zen, 1985ean. Txiki-txikitatik egin ditu surfa eta iraupen eskia. 18 urte bete eta bidaiatzen hasi zen. Urte erdia iturgin lanetan aritzen zen eta beste erdia kirola eta jende eta leku berriak ezagutzen. Kamioiarekin bidaiatzen zuen, eta horrela, Portugal eta Alpeak ere ezagutu zituen. Alpeetan bost sasoi egin zituen, mantenimendu lanak eta alpino eskia egiten. Marokon eta Mauritaniako kostan surfeatzen ere ibili zen. Eskiatzeaz gain, skate-board eta eskalada ere probatu ditu, eta iaz bizikletarekin jai-tsierak egiten hasi zen.

Musikaria ere bada. Berak esaten duen bezala, belarri ona du, eta gitarra eta perkusioa ere jotzen ditu.



Gaur egun, Itsasondoko baserri batean bizi da, Itxaro bere emaztearekin eta Kattalin, 18 hilabeteko alabarekin.

Aita, musikaria eta kirol anitzak gustuko dituena; eta orain, gainera, baratzean permakultura prozesua martxan jarri berri duen mutila da Txomin, jarraian piska bat gehiago ezagutuko duguna.

Noiz etorri zinen Itsasondora?

Orain dela bi urte eta lau hilabete.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

18 urte egin nituenean bidaiatzen hasi nintzen; iturgin ibiltzen nintzen sei hilabetez eta beste sei hilabetez bizitzaz gozatu eta leku desberdinak ezagutzen nituen. Horrela, kamioiarekin bidaiatzen leku asko ezagutu ditut, eta surfean aritzeko eta eskiatzeko aukera ere izan dut.

Itxarok eta biok baserri batean bizi nahi genuen, bertako landareak hazi... Itsasondon baserri bat topatu eta horrela iritsi ginen bertora.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunaz?

Orain bizi garen baserria, "etxe handi hori".

Utzi al duzu familiarik bizi zinen herrian?

Bai, gurasoak, orain dela lau urtetik Biarritzen bizi direnak, eta arreba, Iparraldean bizi dena.

Zer lanbide zenuen zure herrian?

Iparraldean iturgin lanak egiten nituen.

Zer lanbide duzu hemen?

Orain lau hilabete Aguraingo Jason egiten dut lan. Eolikoan karga-jasogailuak eta eskailerak egiten ditugu.

Zer nabari duzu faltan?

Itsasoa.

Zer ez zaizu gustatzen hemen? Eta zer duzu gustuko?

Bat nazional errepidea. Zirrara egin zidan, kotxeak, zarata...

Mendia gustuko dut.

Zein zaletasun dituzu?

Kirola, orokorrean: surfa, skate-boarda, eskiatzea, eskalada... Baratzean ere gustura aritzen naiz. Orain, permakultura sistemarekin hasi naiz eta oso pozik nago, emaitza izugarriak ikusten ari naiz. Aurrez lurra prestatzeak lana dauka, baina gerora... ez duzu ureztatu eta lurra mugitu behar! Alferrentzako baratzagintza dela esaten dute!

Janari bat.

Iparraldekoa: ostrak, muskuiluak, gazta, ardoa, patisseriea (hango okindegia, ogiarekiko kultura izugarria dago). Bertakoa: paella, albondigak, ardoa, txistorra...

Itsasondoko/Goierriko txoko bat.

Urkiko plaza. Bista ederrak daude eta bertan dago.

Amets bat?

Nire familiarekin munduan zehar bidaiatzea. Hego Amerika geratu zitzaidan bisitatzeke, eta abiapuntua hura izango litzateke (barrez...).

Jaso duzun oparirik bereziena?

Kattalin, nire alaba.

Zeri diozu beldurra?

Bakarrik egoteari.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Bizitzak.

Itsasondon biziko ez bazina?

Itsasoa duen herri batean.

Nola ikusten duzu zeure burua urte batzuk barru?

Beti aurrera begira, jendearekin elkartrukatuz. ■

Partaidetza lantaldeak

Herri bizitza

Euskara

Itsasondo beti izan da herri euskalduna, baina azken aldian hizkuntzaren kalitatea eskaxagoa dela hautemanda, euskara taldea sortu zen egoera honi buelta eman eta euskarari bultzada bat emateko asmoz.

Herri Bizitzan eragile desberdinak elkartzen garenez garrantzitsua ikusi genuen bertan gaia lantzea eta horrela jakin genuen plazan auzolanean eginiko murala, euskara jatorra bultzatzeko zena, eskolakoak erabiltzen hasiak zirela.

Bestalde, mintzalagun jardueraren inguruan, arazoa euskaldun berriak bilatzean zegoen, zaharrak parte hartzeko prest baitzeuden. Hortaz, eremu desberdinetan honetarako gonbidapenak egiteko konpromezua hartu genuen.

Urte batzuetan euskara ikastaroak herrian bertan mantentzea ezinezkoa izan den bezala, aurten martxan jarri da eta bertan, bi itsasondoarrek parte hartzen dute.

Gaiaren inguruko hausnarketa egin da eta guztion iritziak partekatu ondoren, euskararen aldeko lan bateratua egin behar dugula ondoriotzatu dugu, bakoitzak, mugitzen garen esparruetan eraginez.

Urteko kirol plangintza

Agenda 21eko datuetan urteko kirol plangintza bat sortzearen beharra zegoela ikusita, orokorrean herrian genuen kirol eskaintza aztertzea erabaki genuen. Horretarako, guztien artean, herrian ezagutzen ditugun kirol eskaintzak zerrendatu genituen eta nabarmendu zen gimnasio baten beharra bazegoela.

Bestalde, haurrei dagokienez, eskolaz kanpoko ekintzarik ez dute he-

rrian baina plazara begiratzea besterik ez dago zenbat kiroletan jarduten duten ikusteko: patinak, txirrinduak, monozikloak, pilota... beraz, ez genuen behar modura identifikatu.

Gaztetxoei dagokienez, talde kiroletan parte hartu nahi dutenek herritik kanpo joan behar dutela garbi dago, baina zumba eta pilates bezalako ikastaroetan ere parte hartu dezakete, beraz horretara animatu beharko genituzke.

Bestalde, konturatu ginen antolatzen diren ikastaro hauek herritar taldeek antolatzen dituztela eta beraz, posible dela herritar guztiak hauen berri ez izatea, hori horrela, aldizkarian honi buruzko informazioa argitaratu genuen, bakoitzaren ordutegiak, prezioak eta kontakturako telefonoak eskainiz.

Elkarteen eguna

Udalean hiru batzorde irekirekin egiten dugu lan eta edonork parte hartu dezake hauetan. Herri Bizitzan, konturatu ginen batzordeen arteko lotura gutxi genuela eta guk lantzen genituen gai askok ere lotura izan zezaketeela gainontzeko batzordeekin. Bestalde, elkarteetako kideek ere lan handia egiten dute urtero urtero herri bizitza mantentzeko eta beraz, ibilbide hauek ikusi nahi izan genituen.

Horretarako, elkarte bakoitzari bere baitan ekitaldi/une garantzitsuenak irudikatuko zituzten irudiak bilatzeko eskatu genien, ondoren muralak osatzeko asmoz.

Beste bi batzordeei ere, hau da, Ongizate eta Lurralde Antolamendukoei, gonbidapena pasa genien, egun horretan parte hartzeko.

Egunean bertan, hainbat mural

jarri genituen eta elkarte bakoitzak beraien lana azaldu zuen: zailtasunak, gaitasunak, elkartearen garrantzia, gaur egungo inplikazioa herri bizitzan, etorkizunerako erronkak... horrela, post-it ak erabiliz gure iritzia eman genuen.

Herriko jaiak

Duela pare bat urtetik, urteroko plangintzako gaia izaten da herriko jaiena, izan ere, urtero zalantza edota hausnarketa berriak agertzen dira bertan: lehiakortasuna, euskararen erabilera...

Aurten, gai potoloa izan dugu eskuartean: ABUZUKO JAIK. Urte askoan mantendu badira ere, azken aldiaren beherakada nabarmena sumatu da, bai parte hartzean eta baita antolakuntzan ere, horretarako zailtasun handiak izaten baitira, datak kontuan izanda. Hori horrela, eztabaidaren ondoren, etxex-etxex gutun bat bidaltzea erabaki genuen, egoera zein zen azalduz eta jai hauek mantentzeko nahia agertzen zuen oro, hurrengo jai batzordeko bilerara gonbidatuz. Hurrengo bilera horretan gaian interesa zuen inor agertu ez zenez jai hauek bertan behera uztea erabaki zuen batzordeak, hala ere, jubilatuek beraien bazkariarekin jarraitzeko aukera ikusten zutenez, hau mantenduko da.

**Hemendik aurrerakoak:
aurrekontuak hezkuntza
2018ko aurrematrikulazio
kanpainarako ideiak**

Ongizatea



Errefuxiatuak

Zalantzarik gabe aurtengo gai esan-guratsuenetarikoa izan da errefuxiatuen gaia. Ongizate batzordetik bultzada handia eman diogu eta herriko eragile ezberdinen inplikazioaz ekintza asko atera ditugu aurrera, hala nola, Javi Julio argazkilariaren argazki ezberdinak mural moduan jarri ditugu herrian zehar. Javiren dokumentala ere eman genuen kulturean eta jende ugari bildu zen. Azkenik, guzti hau borobiltzeko ekainaren 20a errefuxiatuen eguna izanik, 17an jai erraldoia antolatu genuen eta herritar nahiz kanpoko jende ugari bertaratu zen. Zalantzarik ez daukagu gai hau landu beharrean gaudela eta ea guztion artean landuz herritarren inplikazioa lortzen dugun.

Berdintasuna

Berdintasunaren alde egingo duten herritarrak nahi ditugu Itsasondon eta horregatik, Ongizate batzordeak garrantzitsua ikusten du berdintasunean oinarritutako heziketa bat ematea. Hori dela eta, eskola esparruan eragin genuen Emagin taldekoekin matxismoaren inguruko tailer bat eginez. Honekin, ikuspegi kritikoa garatzea, jendar-teko rola aztertzea eta mikromatxismoaren identifikazioa ematea izan ziren helburuak.

Bestalde, herri mailan, emakumearen eguneko egitaraua antolatu genuen, egunean bertan elkarretar-tea eta afaria antolatuz. Aurten



berritasun modura murala egin genuen plazan eta baita ere antzerki emanaldi bat ekarri ere, emakumeok jasaten ditugun kontrolen ingurukoa, hain zuzen.

Harrera Plana

Herritar baten laguntzaz harrera egunerako lehendik prestatutako informazio liburuskak frantsesera itzultzea lortu da (aurretik euskara, gaztelania eta ingelesera ere itzultita dago liburuska), gurera datoze-nei lehenengo egunak errazteko asmotan. Hori horrela, ekainaren 6an, harrera eguna antolatu zen eta herriko eragile ezberdinetako ordezkariak gustora aritu ziren herritar berri hauei harrera eginez. Herritar bakarra agertu zen ekimenera eta oso gustora egon zen. Herriko zerbitzuak ezagutzeaz gain, sarea osatzen laguntzeko balio izan zion.

Dokumentalak

Aurten ere dokumental desberdinak ematearen aldeko apustua egin

dugu. Modu honetara, gai desberdin asko landu daitezkeela pentsatzen dugu eta oso aberasgarria izan daiteke elkarren artean iritzi eta ikuspegi desberdinak elkartrukatzeko. Aurten aukeratutakoekin, Down Sindromea, autismoa, elkarren arteko errespetua, aniztasuna... bezalako gaiak landu ditugu.

Piskanaka uda giroa probestuz ere kanpo-zineari bultzada eman nahi izan diogu eta aurten, pare bat egunetan egin ditugu kanpoko saioak.

Balorazioa eginez, esan beharrean gaude herritarren interesak bera egin duela eta azken film-etara oso herritar gutxi gerturatu dela.

Bide batez, lerro hauek aprobetsatu nahi ditugu, film-etara zaletua den norbait interesatuta badago gai honetan ongizate batzordeari esku bat botatzeko, gonbitea luzatu eta ongietorria izango dela esateko.

Amaitzeko esan, hiru film prest ditugula iraila, urria eta azarorako gerturatzeko animatu!

Desfibriladorea

Martxorako ikastaro bat aurreikusuten baguen ere, bertan behera gelditu zen jende faltagatik. Hala ere, gai garrantzitsua dela iruditzen zaigu eta udalean desfibriladorea dugunez beharrezko ikusten dugu gaiaren lanketa egitea. Horregatik, aldizkarian BBB-RCP argibideak argitaratu genituen. Udalean, mediku kontsultan eta jubilatuekin elkartean ere kartelak ipini dira argibideekin eta herritarren artean poltsikorako argibideak ere banatu dira.

Tipi-Tapa

Tipi-tapa ekimenaren barruan, iaz, jubilatuentzako memoria tailerrekin hasi ginen eta orduko arrakasta ikusita ekimenari jarraipena eman nahi izan diogu. Horretarako, bolondresak bilatu ditugu eta guztien artean egutegi bat osatu dugu, hileroko hileroko jubilatuekin elkartu eta tailer hau aurrera atera dadin.

Bestalde, kiropraktiko baten hitzaldia ere izan genuen. Gure bizkarrezurra ondo zaintzeak duen garrantziaz jabetzeko interesgarria izan zen.

Elikagai Bankua

Elikagai bankua lekuz aldatzeko erabakia hartu da, izan ere, horretarako erabiltzen den tokia ez dago ongi egokituta. Lekualdatzeko aukera desberdinak aztertu dira eta Madero zaharra egokitzea erabaki da. Urtea amaitzerako gizarte langilearekin eta asistentarekin landutako

sistema berri bat martxan jartzea espero da.

Agenda 21

Martxoan, herriko medikuarekin elkartu eta interesgarriak iruditzen zitzaizkigun gai desberdinak atera ziren. Tartean, Nerabeak eta "Smartphon"ak izeneko hitzaldia antolatzeko aukera suertatu zen KZgunetik bideratuta.

Bestalde, urteko kirol plangintzari heldu eta herrian gimnasio txiki bat egokitzearen ideia aztertu genuen. Hala ere, herritarrekin aurrelanketa bat egitea beharrezkotzat jota eta diru laguntza batzu tarteko, datoren urterako utzi da gaia. Dena den, kirola sustatzeko muralak jartzeko asmoa dago herrian zehar gai desberdinen inguruko informazioa eskainiz: elikadura osasuntsua, soinketa ariketa desberdinak, ariketa egitearen onurak zein diren...

Langabetuen gaia ere eguneroan duguna izanik, herrian zein egoera dugun aztertu dugu. Lanbideetik ateratako datuen arabera, %6,5eko langabezi tasa daukagu helburu edota irtenbide desberdinak planteatu dira formakuntzalana programa baten bitartez: JANZKILAN formakuntza; Goierri Eskolan PEOI perfilaren formakuntza; Goierri Eskola eta Lanbideren eskutik orientazio ikastaroak.

Ongizaten lantzen ditugun gai askok gazteriarekin lotura handia dutela uste dugu eta horregatik, aurrez aipaturiko gaiak kolektibo honekin

lotzea proposatu zen urte hasieran. Horretaz gain, etxebizitza sozialaren gaia aztertu dugu eta hau da egoera: Momentu honetan udaletxeak 4 etxebizitza sozial ditu eta guztiak okupatuta daude:

1. ETXEBIZITZA Azken luzapena 2020ko maiatzak 31a arte onartu zaio.
2. ETXEBIZITZA 2017ko azaroak 14ean amaitzen zaio. Ez dauka luzapen eskubiderik.
3. ETXEBIZITZA 2018ko urtarrilak 31a bitarte dauka. Ez dauka berrietzeko eskubiderik.
4. ETXEBIZITZA Familia bizi den bitartean etxebizitza eskubidea dute.

Azkenik, KZguneari erabilera handiagoa emateko helburuarekin bertako inpresora berri ere erabiltzaileen esku egotea lortu da, aparatua KZguneak utziz eta honen kudeaketaz udala arduratuz. Bestalde, KZguneari esker herrian bertan ikastaro desberdinak egiteko aukera sortu da, "Oinarrizko Internetari" eta "Ofimatika tresnak erabiltzen ikasteko". Ofimatikara zuzendutako ikastaroan ez bazuen ere inork izena eman, Oinarrizko Internetarako bitalde sortu ziren eta parte hartu zuten esanetan, oso interesgarria izan zen.

Jakin azaroan berriz beste ikastaro eta hitzaldi batzu emateko aukera irekiko dela, beraz adi egon deialdiei.



Lurralde antolamendua

Frontoiaren irisgarritasuna

Ekainera bitartean landu dugun gai garrantzitsu bat plazako frontoiaren irisgarritasuna izan da. Honetarako, Foru Aldundira diru-laguntza eskaera bat egin da eta obra honen %50a diruz lagundua izango da. Hau egiteko ordea, ezinbestekoa ikusten dugu herritarren parte hartzea eta beraz, aztertu diren alternatiba ezberdinak herritarren eskura jarriko dira, prozesu baten bitartez guztion artean aukeratu dezagun. Guzti hau irailetik aurrera martxan jarriko dela aurreikusten dugu.



Herri bideen inbentarioa

Parte hartze prozesu bat oinarri harturik eta esperientzia handiko enpresa batek lagunduta, herri bideen inbentario bat egingo da. Horretarako aurkezpena eginda jada eta beraz, oporren segidan emango zaio hasiera proiektuari. Honen helburua, azterketa bat egin eta udal-barrutiko bide publikoak zein diren izendatzea eta zehaztea izango da, besteak beste.

Bizikleta gordailua

Frontoiko txoko batean bizikletentzako gordailu bat egitea pentsatu zen, honen beharra ikusten bai zen. Idea aurrera eramateko, auzolanez baliatu eta itxitura jarri genuen. Honekin amaitzeko, araudi bat onartu eta serrail elektronikoa jarri genion, udaleko gainontzeko zerbitzuek bezala guztion eskura egoteko.

HEMENDIK AURRERAKOAK:
Frontoiaren proiektua aurrera eraman herritarren parte hartzeaz.
Herri bideen inbentarioa egin ahalik eta jende gehienaren parte hartzea lortuz.
Urkiko aterpea egokitu eta jendeari ireki.
Baserrien ur hornidura aztertu.
Murumendiko naturagunea berreskuratzen jarraitu.

Interneta oporretan

Uda berriro dator guregana, eta berarekin oporrak ere bai. Interneta beharrezkoa al da?

Uda iritsi da, eta berarekin oporraldia. Geroz eta ohikoagoa da mugikorra, tableta edo portatila gurekin eramatea. Batzuek oporretako argazkiak momentuan bertan sare sozialetara igotzeko erabiliko dute; beste batzuek musika entzuteko, pelikulak ikusteko...

Gaur egun, Internet zerbitzua asko hobetu da. Hala nola, mugikorren GB tarifetan gero eta datu kopuru gehiago aurki ditzakegu. Wifi publikoak/askeak nonahi aurki daitezke kanping, hotel, merkatal zentroan... 4G kobertura ona eduki dezakegu ia nonahi.

Hala ere, zuen hotelean, kanpingean edo joan behar zareten lekuetan ez badago internet zerbitzurik, gutxienez, oinarritzko internet zerbitzu bat edukitzeko sistema batzuk errepasatuko ditugu:

- **Mugikorraren internet zerbitzua partekatu:** Mugikor askok ematen dute aukera zuen te-leoperadoreen internet zerbitzua beste dispositibo batzuekin elkarbanatzeko, bai beste mugikorrekin, tabletekin edota ordenagailuekin. Hori posible da bluetooth zerbitzuari esker, baina kontuz! Dispositibo guztiak ez dira konpatibleak izaten beraien artean; beraz, informatu ondo lehenik. Bluetooth bertsioekin arazoak egon daitezke, eta beraz aukera hau gure eskuetatik kanpo gera daiteke. Esan beharra dago baita ere, IPhonen eta Androiden arteko lotura Bluetooth bitartez ezinezkoa dela.
- **USB-Modem (pintxoa):** Nahiz eta tablet askok usb sarrera izan, esan beharra dago pintxo hauek ez dutela balio tabletentzako; portatilentzako baino ez. USB hauek, USB memoria antzeko itzura dute eta bertan mugiko baten txartela sartuta sartzen da, horrela internet zerbitzua ematen bait dute. Azken finean, mugikor baten eginkizun berdina du, baina kasu honetan, soilik Interneten ibiltzeko balio dute.
- **3G/4G Modem:** Pintxoaren eginkizun bera du, baina kasu honetan ez da lotzen USB bitartez portatil batera. Bluetooth bitartez lotuko da, eta ez soilik portatila, beste mugikorrak eta tabletak batera lotu daitezke (normalean bost ekipo batera konekta daitezke). Pintxoak bezala, barnean mugikor txartel bat du, Internet zerbitzua eman ahal izateko. Azken hau sistemarik erosoena izaten omen da.

Berez, horiek dira gehien erabiltzen diren sistemak. Seguruenik konpainia bakoitzak bere sistema propioen bat izango du, baina hemen aipatutakoak inongo arazorik gabe aurkituko dituzue.

Interneta edukitzeak onurak ditu, batez ere oporretan. GPS-a erabili daiteke, eguraldiaren berri izan, inguruko notiziak eta gune interesgarriak bilatu. Hala ere, gomendio bezala, ahal den gutxiena erabili ezazue, disfrutatu oporrak; beharrezkoa bada galtzea, galdu lasai. Eta gauza oso garrantzitsua: oporretan bazaudete, ez igo zuen argazkiak sare sozialetara momentuan (gutxienez itxaron egun batzuk). Lapur posibleei pistak ematen ari zarete, etxean inor ez dagoela esanez. Beraz, lasai, denbora izango duzue eta partekatuzko.

Espero dut puntu hauek argigarririk izango zaizkizuela. ■

Avinguda enginyer Andoni Sarasola

Valentziako Sagunto herrian, jaiotzez itsasondarra zen Andoni Sarasola ingeniaria omentzen duen plaka aurki dezakegu, etorbide bati bere izena jarri bait diote. Albistearen berri izanda, horren inguruko informazio gehiago jaso nahi izan dugu, eta bere seme Joseba Sarasola elkarrizketatzeko aukera izan dugu.

Josebak azaldu digun moduan, Andoni Sarasola Itsasondon jaio zen, 1917ko apirilaren 14an. Aita, Jose Manuel Sarasola Zalakain, Itsasondoko alkate izan zen, eta aitona, Juan Martin Sarasola Goitia, Sarasola pizarrerien fundatzailea. Ikasketak Itsasondoko eskolan hasi zituen, bost urterekin, eta Ordizian jarraitu zituen, Rezola akademian. 11 urte zituela, 1929an, familia osoa Donostiara joan zen bizitzera, eta Sagrado Corazón ikastetxean jarraitu zuen ikasketekin; azkenik, Batxilerra Iruñean egin zuen. Garai hartan, gerra medio, Donostian giro aldrebesa zela eta, familia osoa Itsasondora bueltatu zen. Hemen ere ez ziren garai errazak, eta beraz, etxeko liburu guztiak atera eta sutan erre behar izan zituzten. Hemendik Urkira igo eta han egon ziren, ezkutuan, denboraldi batez. Aitona kartzelan sartu zuten, lehendabizi Iruñean eta ondoren Ondarretan. Hala ere, norbait behar zen fabrika aurrera ateratzeko, eta libre utzi zuten 30.000 pezetako isuna jarrita.

Batxilerra amaitutakoan, 1941ean, Madrilgo Meatzaritza Ingeniari Eskolan hasi zen, eta 1946an amaitu zituen ikasketak. Ondoren, Villablino (Leon) herriko ikatz meategian hasi zen lanean, eta urtebete geroago, 1947an, Sierra Menera konpainiako zuzendari izendatu zuten, eta beraz, Puerto Saguntora joan zen bizitzera, emaztearekin batera. Konpaniak administrazioa Bilbon zuen, burdin meatzeak Ojos Negros-en (Teruel) eta ferrokarrila Ojos Negros-etik Saguntoko porturaino iristen zen, 205km-ko distantzia eginez. Portu horretatik beste herrialde batzuetara esportatzen zuten minerala, hala nola Alemaniara, Holandara eta Ingalaterrara.

Han bizi zirela, lehenengo semea jaio zen; baina, zoritxarrez, sei hilabete zituela hil egin zen. Orduan, Itsasondora ekarri zuten, eta hemengo hilerrian lurperatu, sustrai euskaldunak mantenduz. Gerora, zazpi seme-alaba izan zituzten, guztiak Donostian jaiokoak. Euskal Herriarekiko izandako loturari esker, seme-alabek euskaraz ongi ikasi zuten; izan ere, txikiak zirela, Euskal Herrian



pasatzen zituzten udarak, Itsasondon, aitonaren etxean; eta Donostian, Alde Zaharreko Ikastola klandestinoetara joaten ziren euskara praktikatzera. Bertako kulturaz gozatzeko aukera ere izaten zuten. Josebak kontatu digunez, Gorrotxategik zuzenduriko "Gaztetxo" dantza taldean parte hartzen zuten, eta horrela, txistua jotzen ere ikasi zuten. Gainera, Valentzian bizi baziren ere, maiz gonbidatzen zituen Itsasondoko lagunak bertara, Jesus Lete "Ibai-Ertz" edota Don Martin "Potxolo" apaiza, esaterako.

1963an, ingeniari izatetik, konpainiako gerente izendatu eta Bilbora joan ziren, administrazioa zuten lekura. 10 urte igaro zituzten han. Izan ere, 1973an, konpainia barruan emandako aldaketa batzuk medio, hau tokiz aldatu zuten, guztia Madrilera eramanez eta ferrokarrila Renferi salduz. Horrek guztiak haserre handia sorrarazi zion Andoniri eta ferrokarrilaren aldeko lan handia egin zuen, artikulu asko idatziz, eta baita liburu bat ere. Beraz, gizarteak bizi zuen egoera kontuan izanda, Madrilera joateko aukera izan bazuen ere, aukera hori baztertu eta Bilbon geratu zen Andoni. Hemengo egoera, ordea, ez zen samurra, eta urte horretan bertan, Madrilgo promozioko lagun batzuekin harremana zuenez, beraiei esker Bilboko jefaturatik Salamankakora joan zen, familia guztiarekin. Han, harreman estua izan zuen Koldo Mitxelena katedratikoarekin, Euskaltzaindiako kide eta euskara batuaren sustatzaile zenarekin. Han urte batzuk pasatu on-



Lagun batzuekin



Etorbidea

Andoni eta Jesus Lete
Candido etxean (Segovia)Don Martin itsasondoko
apaizarekin eizan.

Andoni Sarasola

doren, 1988an jubilatzen zen, 68 urte zituela, eta berriro Euskal Herrira itzuli ziren. Hemen finkatu zuten berriro ere bizilekua, eta bertan bizi izan zen, 2006ko abuztuaren 14an hil zen arte.

Andoniren ibilbidea pixka bat ezagututa, zer dela eta jarri diote plaka hori Sagunton? Bada, Josebak azaldu bezala, Saguntotik ferrokarrila kentzeak kalte handiak eragin zituen inguru horretan, garai hartan ezinbestekoa baitzen meatzaritzaren jarduerarekin jarraitzeko. Horren ondoren, Altos Hornos del Mediterraneo enpresa siderurgikoa ere itxi egin zuten, eta beraz, apurka-apurka, herrian pobretze handia gertatu zen. Andonik, egoera horretan, ferrokarrilaren aldeko lan handia egin zuen, beti babestu zuen, eta artikulatu ugari idatzi zituen bere garaian, baita liburu bat argitaratu ere: *Minas y ferrocarril Ojos Negros-Sagunto. Testimonio de un ingeniero en la dirección de una empresa, 1947-1967*. Andoni Donostiara itzuli zenean, Saguntoko Udala berarekin harremanetan jarri zen, eta gaiaren inguruko informazioa biltzen ibili ziren, berarekin hainbat elkarrizketa eginez. Horrela, Ramon de la Sotari, Sierra Meneraren fundatzaile izan zenari, plaza baten izena jarri zioten moduan, Andoni Sarasolari etorbide bat eman diote, eta hantxe jarri dute bere lanari eskerrak emateko plaka hori; beraz, opor garaia amaitu zaigun arren, aukera baduzue, joan zaitetzeko Sagunto herrira, bertako hondartzaz gozatzeko aukeraz gain, plaka ikusteko aukera ere izango duzue eta. ■

Azken txangoak

Lekeitiora txangoa

Maiatzari hasiera ematearekin batera Bizi Nahi elkartereko kideak txango bat eginez, Lekeitiora joan ziren. Goizeko 9ak aldera, autobusez abiatu ziren eta iristean, gidari baten laguntzaz herria bisitatu zuten, esanguratsua diren txoko bereziak ezagutuz. Egaña jatetxean bazkaldu eta 5ak aldera, autobusez, Ondarua joan ziren. Bertan, denbora librean izan zuten eta paseo ederrak eman zituzten, tartean, portura gerturatu eta itsasontzietatik arrain freskoa nola deskargatzen zuten ikusi zuten, ikaragarri ekarri omen zuten eta. 20:30ak aldera etxera itzuli ziren, eguraldi onak lagundutako egun ederra igarota.

Goierriko ibilaldia

Urtero bezala, Goierri mailako jubilatuen elkarte guztiak, ibilaldirako deialdia izan zuten, oraingo honetan Beasainen. Itsasondotik 5 lagun animatu ziren eta han abiatu ziren 8 kmko buelta ematera. Giro onean Beasain inguruan ibilalditxoa egin zuten eta amaieran opari desberdinak jaso zituzten. Datorren urterako ere gogotsu agertu dira, ea Goierriko zein txokotan egiten duten.

Alegira txangoa

Ohitura bihurtu da Alegira egiten duten txango hau eta aurten ere honi eutsi nahi izan diote. Uztailaren 4an goizeko 11ak aldera trenan hartu eta Tolosara joan ziren, bertatik, bide gorria aprobetxatuz, tipi-tapa eta lagun artean Alegiraino joan ziren, bidean hamaiketako ere egin zutelarik. Alegira iristean, bertako jatetxea batean bazkaldu eta trenan hartu zuten herrira bueltatuz. Oraindik etxera joateko gogorik ez eta bingo inprobisatu bat antolatu zuten jubilatuen elkartean, bertako giro frexkoa aprobetxatuz! ■






34. Ibilbidea

Zaldibia-Osinberde

Zaldibiako parke botanikoan hasiko dugu ibilbidea. Seinale zuri-berdeak jarraituz, parkea zeharkatuko dugu eta Arkakako zentraleraino joango gara. Hara iristean, errepide nagusira aterako gara, eta marka zuri-berdeak jarraituko ditugu berriaz, Osinberdera iritsi arte. ■




Iraupena: 2 ordu eta 45'

Zaldibia-Arkaka: 45'

Arkaka-Osinberde: 45'

Osinberde-Zaldibia: 75'



01

Parke botanikoa



02

Olalde baserria




03

Unanubieta baserria



04

Karobia



05

Zubieta baserria



06

Lazkao Etxe




07

Arkaka



08

lñustiko iturria



09



10

Osinberde

2017ko Urkiko maiatzeko jaiak

Maiatzaren 3an, Gurutze Deunaren egunean, hasi ziren jaiak; eta, meza ondorengo hamaiketakoan, elkarteko jangela bete egin zen.

Eguerdiari, bazkaria egin zen, eta iluntzean erromeria Jon Ostolaza eta Unai Narbaiza trikitilariekin.

Maiatzaren 6an, XXXIV. Mus Txapelketarekin hasi zen arratsaldea, 10 bikoterekin, eta irabazleak Antonio Etxeberria eta Joxe Luis Aranburu izan ziren.

Ondoren, lagun arteko afaria egin zen elkartean, eta Iñaki Laja eta Andoni Larrañaga trikitilariekin erromeria, goizaldera arte.

Maiatzaren 7an, igandea, hamaiketakoa eta bazkaria izan ziren lehenik. Jende ugari elkartu zen.

Arratsaldean, XXXIV. Toka txapelketa jokatu zen. Emakumezkoetan Josune Otegi eta gizonezkoetan Jose Luis Garmendia "Laja" suertatu ziren irabazle.

Iluntzean, erromeria egin zen, egun osoan trikitia jotzen aritu ziren Laja eta Lutxurdio trikitilariekin.

Urkiko jaien aldeko saskiaren zozketan, zorteduna Axier Zunzunegi izan zen.



KZgunea

Askorentzat arrotza bada ere, udaletxeko behoko solairuan daukagun KZguneak doako prestakuntza eskaintzen jarraitzen du. Ikastaroen eskaintza zabala da, baita ordutegiak ere, aukeran gure interesen arabera hartu ditzakegunak gure zereginekin bat egin eta uztartzeko. Aprobetxa dezagun!

Apirilean antolatu ditugun ikastaroen artean hauek atera dira aurrera:

Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi [20 ordu]

Internet munduan sartzen ikasteko ikastaroa, PC bat zer den jakin, nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasi, beste gauza batzuen artean.

Hobe aurre hartzea sendatzea baino. Nerabeak eta Smartphone-ak. Hitzaldia [2 ordu]

Gailu mugikorrek eta bereziki smartphone-ak nerabeen arteko komunikazioan funtzesko tresna dira. Aurre hartu, jakin zeintzuk diren arriskuak eta nahigabeak saihestu.



Formakuntzaz gain, Interneterako doako sarbidea eta elkarreentzat doako webguneak sortzeko aukera ere eskaintzen ditu KZguneak.

Jakin ezazue azarotik aurrera ere zenbait ikastaro eta hitzaldi eskaintzeko prest daukagula KZgunea, eta aldizkariarekin batera iritsi zaizuen orrian daukazue informazio guztia. Interesatzen zaizuen ikastaroa aukeratu eta utzi orria udaletxean edo KZgunean aurkituko duzuen postontzian. Izena emateko azken eguna urriaren 20a izango da.■

Laburmetraia

Udako giro ona aprobetxatuz, aurten ere, Ongizate Batzordeak dokumental emanaldia antolatu zuen goiko frontoian, film laburrak kasu honetan. Zortziak aldera familiak gerturatzen hasi ziren, etxetik ekarritako ogitartekoak afaldu eta gaueko iluntasuna lagun ikusi zituzten filmak.

Udazkenari begira, dokumental interesgarriak izango ditugu Itsasondon. Irailean Alzheimerraren Munduko Eguna ospatzen dela aprobetxatuz, gai honekin zuzenean lotuta dagoen dokumentala izango dugu ikusgai, *Yo no soy de aquí*, hain zuzen. Eta horrez gain, urrian, *Amaren eskuak* pelikula ikusteko aukera ere izango dugu. Azaroan ere pelikula izango dugu, baina kasu honetan beste gai bati helduko diogu *Planes para mañana* filmaren bidez.

Irailean Kulturgunean elkartuko garelakoan, laster arte!■



San Juan sua

Ekainaren 23an, udako solstizioarekin batera, San Juan bezpera ospatu genuen. Gaur egun kristautasunarekin lotua badago ere, antzinan jentil ohitura zen hau. Urteko egunik luzeena eguzkiari eskaintzen zitzaion, eta eguzkiaren ikur bihurtuta, suak gaua argitzen zuen, gau magikoa bihurtuz; eta bai magikoa aurtengoa!

Iluntzerako sardina jan ederra prestatu ziguten plazan, eta giro ederrean afari merienda goxo-goxoa izan genuen. Egun luze hau iluntzearekin batera, herriko sorginak dantzara jaitsi ziren plazara, antortxak eta erratzak eskuetan zituztela, eta han ibili ziren, suaren inguruan, jira eta bira dantzan.

Datorren urtean ere jarraituko dugu sua piztearekin batera eguzkiari indarra ematen! ■



Garagardo festa

Ekainaren 9-10 asteburuan garagardo festa izan genuen Itsasondon. Azken urteetan ohikoenez, jende mordoak etorri zen bertako garagardoa eta jakiak dastatzera. Aurten, bederatzi garagardo mota izan ditugu, horietatik sei botilan eta beste hiru kupelean. Jatekoari dagokienez, 100 bat txerri-ukondo erre ziren, eta saltxitxak eta solomoak ere harrera ona izan zuten. Bi egunetan 200 bat lagun gerturatu ziren Itsasondoko plazara; ostirala izan genuen egunik jendetsuena. Aho zapore gozoa utzi digu aurtengo garagardo festak, eta ea hurrengo urtean errepikatzeko moduan garen. ■



Herri Urrats 2017

Maiatzaren 14an ospatu zen aurtengo Herri Urrats, urtero bezala, Senpereko lakuan.

Azken 25 urteetan bezala, aurten ere Itsasondoko herritarrok bertarako txangoa egin genuen.

Goizeko 08:00etan, autobusez 48 lagun joan ginen bertara. Iritsi orduko, "zintzo demonio", denok hamarretakoa egitera gure gunera. Han zeuden, nola ez, furgoneta eta gure jaki, mahai, aulki, eltze, e.a.

Hamarretakoa egin ondoren, taldeka, bakoitzak bere bidea hartu genuen lakuari buelta emateko konpromisoarekin. Batzuek salmahaiei begira eta beste batzuek, hala beharrez, haurrentzako gunean pasa zuten goiza; eta, gehienok lakuari buelta emateko indarra hartuaz, txosnaz txosna.

14:00etan mahai inguruan ginen guztiok, 60 bat lagun, urtero bezala Erramun Amundarainek presatutako bazkari gozoa (babarrunak beren osagarri guztiekin eta paella egin berria) dastatzeko. Ez zen falta izan ez janari, ez edari ez zerbitzurik.

Bazkal ondorenean, 25 urte pasatu direla eta, urtero egin duen lanagatik eta espero dugunez, lan horretan jarrai dezan, ERRAMUN AMUNDARAINi oroigarria eman genion, denon esker ona adierazteko.

Berehala mahaiak, aulkiak eta traste guztiak jaso eta furgonetara eta bueltako autobusera abiatu ginen, bidean tragoxka bat edo beste egiteko denbora hartuz noski!.

Iluntzeko 20:30erako, Itsasondon ginen bueltan, furgoneta hustu eta trasteak jaso ondoren, datorren urtean berriz ere bueltatzeko ilusioak berpizturik. ■



(natura)

Mari Muruko

Joxe Migel Barandiaranek jasotzen duenez, "Azken aldian Usurbe mendiko etxeetan jaso izan den istorioen arabera —Murugoena baserria ere etxeon artean da— eta baita Eusko-Folklore bilduman ere jasotako arabera, Mari Murumendin bizi omen da menpean dituen beste zenbait jeinurekin batera. Han gordetzen ditu jasotzen dituen opariak, geroago bere zerbitzari eta lagunei oparizat ematen diena. Itsasondo herrira Marik harririk edo kaskabitorik bidal ez zezan, bertako bizilagunak herriko apaiza talde-buru zelarik, urtero dama misteriotsuaren kobaren atarian meza egiten omen zuten: hala esaten omen zen Murumendi inguruko herrietan, hau egia den dokumentaziorik ez den arren".

Batzuetan, gauean, abiada bizian hegal eginez, alde batetik bestera zerua zeharkatzen duen suzko igitai bat ikus daiteke. Mari da, etxera itzultzen ari da.

Sorginen munduak utzitako aztarna esanguratsua da sendabelarrak erabiltzeko ohitura. Ezagutza honek ohiko gaixotasun xume edo gaitzei aurre egiteko aukera ematen digu.

San Juanera ukendua

Zauriak garbitu eta sendatzen lagunduko digu, baita larruazaleko arazoak baretzen ere.

Osagaiak

Litro bat oliba oliotan, sendabelar hauen eskukada bat bota eta su baxutan egosi, urik ez dutela nabarmena izan arte. Gau batez beratzen izan, eta hurrengo goizean iragazi ondoren, 120gr argizari gehitu, su baxuan urtuz. Kristalezko ontzi hermatikoetan gorde.

- Larrosa petaloak
- Kalendula petaloak
- Ezkai hostoak eta loreak
- Erromero hostoak eta loreak
- Intxaurrondo hostoak
- Azeri buztana
- Berbena hosto eta loreak
- Pasmo belarra
- Milorri loreak
- lodo belar hosto eta loreak
- Hiperiko hosto eta loreak
- Malba hosto eta loreak
- Intsusa adarren azaleko bigarren geruza berdea eta loreak
- Zaingorria
- Plantaina hostoak
- Izpiliku hosto eta loreak
- Kamamila loreak
- Bostorri hostoak
- Melisa hostoak
- Apobelar loreak
- Aloe vera hostoaren gelatina
- Bardana sustraia
- Konsuelda sustraia
- Agrimonia hostoak eta loreak ■

Maddalen Sarasola



(errezeta)

Bakailao brandada gratinatua

Lau lagunentzako errezeta:

- 600gr bakailao
- 500gr patata
- 300ml esne
- 4 baratxuri
- Pipermin 1
- Tipula 1/2
- 50ml oliba olio
- Ardo zuri kopa bat

Baratxuria, pipermina eta tipula txikitu eta kazola batean poxatuko ditugu. Ondo poxatuta daudenean, bakailaoa gehitu eta guztia egosten hasten denean patata zatiak botako dizkiogu. Hori guztia irakiten hastera doanean, ardo zuria gehituko diogu, eta segidan esnea. Gatza bota eta 25 min su baxuan eduki ondoren, sutatik kenduko dugu. Beste 25 minutuz atsedean har dezan utziko dugu eta ondoren irabiatu egingo dugu.

Brandada hau lurrezko kazolatxoetan zerbitzatzen da, gratinatua eta ogi xigortuekin. Gratinatzerako garaian, gazta apur bat ere gehitu diezaikegu. Beste aukera bat da piper beteak egiteko betegarri gisa erabiltzea.

ON EGIN! ■



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

euskararen arbela

oker esana

- Zeba etorri da? →
- Haizea dago →
- Geldituko gara? →
- Jan beharra duzu? →

zuzen esana

- Zergatik etorri da?
- Haizea dabil
- Ekartuko gara?
- Jan beharra al du?

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitzen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Pues, claro, zu bezala!	Bada, noski, zu bezala!
Bueno, badakizue nor naizen, no?	Tira, badakizue nor naizen, ezta?
Aber zer esaten duten gaueko partean...	Ea zer esaten duten gaueko albistegan...

Euskaraz bai, umorea ere bai

Gizon bat joan omen da medikuarengana berebiziko dardara eskuan, eta...

- Doktore jauna, begira, azken bolada honetan eskuan daukat izugarriko dardarizoa, eta ez dakit zergatik den. Eta medikuak esaten dio:
- Asko edaten al duzu?
- Asko nola edango dut? Erdia erori egiten zait eta!

Albiste

"The Mice Times of Asia" egunkariak argitara eman duenez, munduko bostgarren eta Europako lehendabiziko leku-izenik luzeena euskalduna da. Euskal izen honek 39 hizki ditu eta munduko luzeenak 85 (Zelanda Berria). Leku izena Azpilikueta dago (Baztan), eta honako hau da: Azpilikueta garai kosaroiaren bere kolorea.



Oharrak



ZOKKETA

Aurreko alean eginiko lehiaketaren harira, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen parte hartzeagatik. Askok asmatu bezala, elizako kanpandorra falta zen argazkian. 36. aleko zokketako irabazlea **Manex Aldasoro** izan da. ZORIONAK!

Beste lagun batekin batera Kaxintanen edo Nautikon afaltzeko aukera izango duzu. On egin!

BIZIKLETA GORDAILUA

Dagoeneko martxan da plazako bizikleta gordailua. Berau erabiltzeko sarbidea eta argibideak jaso nahi badituzue, etor zaitzete udaletxera eta bertan emango zaizue beharrezko informazio guztia.

Kultur Agenda

IRAILA

- 14 Hondakinen inguruko batzar informatiboa | 19:00etan udaletxean
- 14, 16 eta 17 Urkiko Santikutz jaiak
- 19, 26 Tipi Tapa | 17:00etan plazan
- 22, 23 eta 24 Itsasondoko Jaiak
- 25 Ongizate batzordea | 19:00etan udaletxean
- 26 Memoria tailerra | 18:00etan jubilatuen elkartearen
- 28 Bingoa | 17:00etan jubilatuen elkartearen
- 28 Film / Dokumental emanaldia | 19:00etan kulturagunean
- 29 Pintxo-potea

URRIA

- 01 Jubilatuen eguna
- 03, 10, 17, 24, 31 Tipi Tapa | 17:00etan plazan
- 06, 13 eta 20 Pintxo-potea
- 09 Lurralde antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00etan udaletxean
- 17 Odol emaileak
- 23 Ongizate batzordea | 19:00etan udaletxean
- 24 Harrera eguna
- 24 Liburutegiaren nazioarteko eguna
- 25 Herri Bizitza batzordea | 19:00etan udaletxean
- 26 Bingoa | 17:00etan jubilatuen elkartearen
- 26 Film / Dokumental emanaldia | 19:00etan kulturagunean
- 31 Memoria tailerra | 18:00etan jubilatuen elkartearen

AZAROA

- 04 Gaztaina jana
- 06 Lurralde antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00etan udaletxean
- 07, 14, 21, 28 Tipi Tapa | 17:00etan plazan
- 08 Herri Bizitza batzordea | 19:00etan udaletxean
- 17 Kantu afaria
- 20 Ongizate batzordea | 19:00etan udaletxean
- 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna
- 25 Antzerkia
- 28 Memoria tailerra | 18:00etan jubilatuen elkartearen
- 30 Bingoa | 17:00etan jubilatuen elkartearen
- 30 Film / Dokumental emanaldia | 19:00etan kulturagunean

Telefono interesgarriak



Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkartea	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((37. zk)) Iraila-Aranda 2017

Ale honetan parte hartu dutenak:

Amaia Salegi
Asier Arbilla
Asier Bazaga
Belen Mendizabal
Bizi Nahi jubilatue elkartearen
Danel Etxeberria
Erkuden Mendizabal
Eskolako haurrak
Haurreskolako hezitzaileak
Iker Mendizabal
Iratxe Ibarra (UEMA)
Irrizblaiko Begiraleak
Iturritxiki Guraso Elkartea
Jose Luis Aranburu
Maddalen Sarasola
Maddi Alberdi
Maider Saenz de Navarrete
Maite Lasa
Mikel Mendizabal
Niko Rodriguez
Ruth Gomez
Saioa Garbizu
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriko kampa bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572



Gipuzkoako Foru Aldundia



GOGORAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
ABENDUAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN